

Aurkezpena


# 2015 BAROMETROA

---



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración



ERRESOLUTIOA 2015/100  
POLITIKARI BAZKARITZA  
Kontseilua / Consejo de Gobierno  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
Departamentuak / Departamentos  
y Departamentos



Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea


# Fitxa teknikoa

- Egindako inkestak: 1.113 (NC = 95 %, sigma = 1,96, eta Akatsa = +/- 2,94%)
- Inkestak lurraldeka: Araba 400 (+/-5,08%), Gipuzkoa 363 (+/-5,14%) eta Bizkaia 379 (+/-5,03%)
- Etxez etxeko inkesta pertsonala 18 urtetik gorako pertsoneri
- Laginketa geruzatua habitat-tamainaren, adinaren eta sexuaren araberako kuotekin
- Etxeen aukeraketa: ausazko bideen sistema
- 61 laginketa-puntu 29 udalerritan banatuta (6 Araban, 11 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian)
- Laginaren haztapena (eragile zuzentzaileak) lurraldeka, habitat-neurri, adin eta sexuaren arabera, EAEko datuak azaltzean

# 1


## Arazoaren pertzepzioa

Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak?  
(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Immigrazioa ez da euskal gizartearen arazo nagusitzat hartzen; izan ere, % 1,6k aipatu du berez, alde aurretik gairik iradoki gabe, Euskadiko arazo nagusi gisa. Guztira, % 12,4k aipatu dute.
- 2014ko datuekin alderatuta, immigrazioaren arazoaren pertzepzioak zertxobait gora egin du, % 12,1tik % 12,4ra.
- Berez –alde aurretik gairik iradoki gabe, alegia– emandako hiru erantzunen artean, EAEko herritarren % 12,4k aipatu dute immigrazioa, honako arazo hauen atzetik: langabezia (% 90,4), arazo ekonomikoak (% 30,5), ustelkeria eta iruzurra (% 18,2) eta klase politikoa (% 17,4).


Txartel honetan ageri diren arazoetatik, zure ustez, zein dira Euskadiko hiru arazo nagusiak?\*



- Arazoa iradokiz gero, horretarako zerrenda bat eskaintzen da, immigrazioa arazotzat hartzen dutenen portzentajea handiagoa da: % 15,3.
- Lehenengo tokian % 4,7k aipatu dute; hau da, bi aldiz baino gehiago aipatu dute, Euskadiko arazoei buruz berez emandako erantzunetan baino.
- Hala eta guztiz ere, arazo sozioekonomikoak dira gizartearen kezka nagusiak; izan ere, langabezia eta bizi-kostua ageri dira lehenengo tokian, eta haiekin batera pentsioak, osasun-sistema, aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunak...

\*2010. urtetik aurrera eman dugun gaien zerrenda ez da aurreko urteetako. Europako datuekin konparatzeko EUROSTATEk eskaintzen duen gaien zerrenda erabiltzea erabaki dugu.

Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki zein hiru arazok ukitzen zaituzte gehien?  
(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Immigrazioa arazo pertsonal gisa lehenengo tokian aipatu dutenak % 2 dira. Aipatu dituzten arazo guztiak kontuan hartuta, EAEko herritarren % 7,3rentzat immigrazioa arazo pertsonala da.
- 2014. urtearekin alderatuta, % 7,5etik % 7,3ra pasa da.
- Arlo pertsonalean gehien aipatutako arazoak langabezia (% 59,9) eta gorabehera ekonomikoak (% 33,5) dira.

Konparazioa aurreko barometroekin: zeintzuk dira Euskadiko hiru arazorik garrantzitsuenak?  
(Gehienez hiru erantzun: erantzun espontaneoak)




- Aurreko urteko barometroarekin alderatuta, langabeziari eta ekonomiarekin lotutako arazoek gora egin dute eta klase politikoari lotutakoek behera.
- Immigrazio arazotzat hartzen dutenen portzentajeak 2009ko kopuruen antzeko samarrak dira.

# 2

## Lanaren funtzionaltasuna




Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko:



- Immigrazioari buruzko ikuspegi funtzional eta utilitarista nabarmen higitu da aurreko urteetan krisiaren inpaktuaren ondorioz. 2015ean, berriz, ikuspegi honek indarra hartu du ia 12 puntu gora eginez.
- 2004an % 80k uste zuten etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko; 2015ean, berriz, % 42,2 dira iritzi hori dutenak.
- Halaber, 2004an herritarren % 11k uste zuten etorkinik ez genuela behar sektore ekonomiko batzutan. Aitzitik, 2015ean iritzi hori dutenak % 41,3 dira, eta gehiengoaren aukera gisa finkatu da.

Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako:




- Antzeko zerbait gertatu da bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak etorkinek betez gero ekonomiak hobeto funtzionatzen duela dioen adierazpenarekin. 2014an % 32,8 ados zeuden baieztapen horrekin; aitzitik, 2015ean % 44,9 daude ados.
- Ideia hori baztertzen duten herritarren kopuruak % 3,5 egin du behera urtebetean.
- 2014. urtearekin alderatuz, immigrazioari buruzko ikuspegi funtzional eta utilitarista igo egin da, hau atzerriko immigranteak onartzeko modurik oinarritzkoena izanik.

# 3

## Elkarbizitza

Zure ustez, EAEn, bertako eta atzerriko biztanleen arteko harremanek hobera egin dute azken urtean, okerrera egin dute, ala berdin daude?




- Oro har, EAeko herritarren iritziz, biztanle atzeritarrekin dituzten harremanak ez dira aldatu azken urtebetean (% 71,8).
- Nolanahi ere, gehiago dira harremanek okerrera egin dutela uste dutenak (% 16,4) hobera egin dutela uste dutenak baino (% 9).
- Berdin jarraitzen dutela uste duten pertsonen kopuruari ia berdin eutsi zaio, 2014tik 0,8 puntu behera eginda.

# 4

## Kultur-aniztasunaren kudeaketa


Kultura-aniztasunari buruzko zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



Lehen batean, EAEko herritarrak jarrera positiboak dituzte kultura-aniztasunari dagokionez:


- Beste talde etniko batzuk egoteak dakarren kultura-aberastasunaren alde egiten dute: % 57,5 ados daude eta % 22,6 ez daude ados (2014an % 49 ados zeuden eta % 26,1 ez zeuden ados).
- % 51,1ek uste dute etorkinen erlijio-praktikek ez dutela arriskuan jartzen gure bizi-estiloa, eta % 30,7k berriz arrisku hori ikusten dute; 2014an herritarren % 57,8 ez zeuden ados, eta % 19 ados zeuden.
- 2013 eta 2014ko datuekin alderatuta, kultura-aniztasunaren aldeko jarrerek behera egin dute.

Euskadin bizikidetza hobetzeko zenbait aukera emango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



- % 80,5ek uste dute etorkinak gure ohiturak eta tradizioak ezagutzen ahalegindu beharko liratekela (2013an % 83,3k hala uste zuten eta 2014an % 80,5k).
- % 70,4k uste dute bai atzerriko etorkinak bai bertako herritarrak ahalegindu behar direla (2014an hala zuten % 74,1ek).
- % 63,8k adierazi du, erabat onartuak izateko, etorkinek uko egin beharko lieketela hemengo legediarekin gatazkak pizten dituzten erlijio- eta kultura-alderdiei. (2013an % 67,5ek hala uste zuten eta 2014an % 57,2k).
- % 63,9k uste dute bertakoek ez dutela ahaleginik egin behar etorkinen ohitura eta tradizioetara egokitzeko (2013an, berriz, % 59,9k hala uste zuten eta 2014an % 61,2k).

Euskal gizartearentzat hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea




- Aztertutako urteotan ikuspegi asimilazionista indarra hartzen joan da, baina aurten 8 puntu egin ditu behera, 2014ko datuekin alderatuta, ohitura eta tradizio berberak dituzten pertsonen osatutako gizartea hobea dela uste dutenen kopuruak (% 58,2tik % 50,1era).
- Herritarren % 27,1 ez daude ideia horrekin ados.



# 5

## Eragin sozialak

Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra




- Atzeritarren presentziak segurtasun-eza eta delinkuentzia sortzen dituela uste dutenen kopurua eta ideia honen kontra daudenen kopurua oso antzekoa da: kasu bietan % 40a dira gutxi gora-behera.
- Halaber, % 44,4k uste dute etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dituztela gero jasotzen dutena baino, eta % 25,2ek kontrakoa uste dute.
- % 49,4k uste dute etorkinek soluzio bat ekar dezaketela, biztanleriaren zahartzea dela-eta. 2013tik aldaketak egon dira: 2013 eta 2014 artean % 50,2tik %37,2ra pasa zen, 2015ean % 49,4ra bueltatuz.
- Etorkinek gehiegizko onura lortzen dutela gizarte-babeserako sistematik uste dutenen portzentajeak 10 puntu egin ditu behera 2014arekin alderatuta.

# 6


## Zerbitzu eta eskubideak

Orain bertakoen zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere baldintza beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?




- Etorkin guztiek eskubideak izan behar dituztela uste duten pertsonen portzentajeek gora egin dute 2014arekin alderatuta.
- Aurreko urtetako emaitzekin alderatuta, euskal gizartearen iritzia da eskubideak izateko ezinbestekoa dela egoera erregularrean egotea, osasun-asistentziaren eta hezkuntzaren kasuan izan ezik, eskubide unibertsaltzat kontutan hartzen direnak.
- 2014ko datuekin alderatuta, erregularizazioa eta eskubideak izatearen arteko erlazioak behera egin du zenbait eskubideri buruz hitz egiten dugunean, hala nola, zerbitzu juridikoa (-8,8), senideak ekartzea (-2,6), bozkatzea (-4,2), gizarte-laguntza (-8,5), osasun zerbitzua (-4) eta hezkuntza (-1,4).

## Immigranteek eskubideak eta zerbitzuak izatea... Osasun zenbitzua



- Etorrin guztiei osasun-asistentzia bermatu behar zaiela adierazten duen iritziak gora egin du, eta krisi aurreko posizioetara bueltatzen da.
- Halaber, osasun-asistentzia egoera erregularrean dauden etorkinei soilik eman behar zaiela uste duten pertsonen portzentajeak behera egin du eta 2009ko datuen oso antzekoak dira.
- Labur esanda, 2014ko barometroarekin alderatuta, datuek hobera jo dute (+2,9), baita 2013 datuekin konparatuta ere (+8,9). Hau horrela, osasun-eskubidea guztientzat izan behar duela uste duten pertsonen portzentajeak gora egin du.


Immigranteek eskubideak eta zerbitzuak izatea... **Hezkuntza**

- Pertsona guztiak hezkuntza eskuratzeko eskubidea dutela uste dutenen portzentajeak gora egin du (+1,4) eta eskubide hori egoera erregularrean dauden etorkinentzat mugatzen dutenen proportzioak behera egin du, % 29,2tik % 27,8ra. 2015eko datuak ztertutako denboraldiaren portzentaje altuenetara (2011. urtekoak) hurbiltzen dira, beraz.
- 2012tik aurrera, hezkuntza eskubide unibertsal moduan ulertzen duen ikuspegiak etengabe jo du gora.

# 7

## Immigrazio politika


## Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokiena atzerritar langileen kasurako?



- EAEko herritarren % 11,6 etorkinei sartzeko inolako lege-oztoporik ez jartzearen aldekoak dira, eta % 6,6 edozein bitarteko erabiliz eragoztearen alde ageri dira.
- % 56,5 sartzeko baimena ematearen alde daude, lan-kontraturen bat baldin badute; eta % 14,9 sartzeko baimena ematearen aldekoak dira, baldin eta beste lege-betekizun batzuk betetzen badituzte.
- Dena dela, portzentajeak gorabehera, hainbat eta hainbat azterlanetan eta gure barometroaren aurreko edizioetan ikusi bezala, lan-kontratua berme nagusitzat jotzen du gizartearen zati handi batek, ziurtasuna eragiten duelako eta susmo txarrak desagerrarazten dituelako.




Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:



- Euskal gizartearen iritziz, lanik gabe geratzea ez da arrazoi nahikoa atzerriko langileak kanporatzeko (% 62,9). 2013an % 52,4k uste zuten hau eta 2014an % 57ak.
- EAEko herritarrak zorrotzagoak dira indarrean dagoen legedia betetzeari dagokionez: % 48,1 ageri dira edozein delitu egiten duten atzerritarrak kanporatzearen alde. Jarrera honek beherakada nabarmena izan du aurtun (-14,8 puntu) 2014. urtearekin alderatuta (% 62,9). Aldiz, 2013 eta 2014 urteen artean portzentaje honek ez zuen ia behera egin (-1,7). 2012an eman zen igoera nabarmenaren ondoren (+23,3 puntu), hurrengo urteetan bere horretan mantendu zen gora-behera gutxirekin, aurtengo jaitsiera arte (-14,8 puntu).

## Zure iritziz, zer egin beharko luke Gobernuak etorkin "irregularrekin"?




- Euskal gizarteak orain ere lana eta atzerriko langileak lotzen ditu; horrenbestez, lana dutenen egoera erregularizatzearen alde (bizileku-baimenak ematearen alde) ageri dira (% 47,2). Lotura hori txikiagoa da 2014an baino, % 54,17koa baitzen orduan.
- Etorkin "irregular" guztiak kanporatu behar direla uste duten pertsonen portzentajea % 16,6ra jaitsi zen 2013an; % 10,9ra 2014an eta % 10,8ra 2015ean.
- Etorkin guztiak erregularizatu beharko liratekela uste dutenen portzentajeak gora egin du.


# 8

## Tolerantzia-indizea



## Tolerantzia-indizearen bilakaera



## BPGren urtetik urterako aldaketa-tasak (%) EAEn



## Tolerantzia Indizearen bilakaera talde handien arabera



- 2014arekin alderatuta, euskal gizarteak, oro har, hobekuntza erakutsi du atzerriko nazionalitate eta/edo jatorriko herritarrenganako tolerantzia-mailan, batez ere pertsona tolerantteen kopuruaren gehikuntza nabarmenean (6,2 puntuko gorakada) eta multzo horretako tolerantzia handiagoan (70,72 puntutik 72,35 puntura igo da). Hau da, pertsona anbibalente asko hartu ditu eta jarrerak hobetu ditu tolerantziari dagokionez.
- Pertsona anbibalenteen multzoak ez du ia aldaketarik izan, 2014koen antzeko bolumena eta puntuazioa izan baititu: pertsonaren bat edo beste gehiago (0,8 puntuko gorakada) eta jarrera ez da ia aldatu (0,9 puntuko beherakada arina).
- Uzkurren multzoa (% 15a direnak) nabarmen txikitu da (ia 7 puntu) baina haien jarrerak gogorragoak dira (beren tolerantzia-indizea 39,93tik 31,27ra pasa da). Beraz, multzo horretan geratu dira pertsona uzkur eta intoleranteak.

## Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
Emakumezkoak	Sexua	.003	Gizonezkoak
65 urte eta gehiago	Adina	.000	18-29 urte
Araba eta Bizkaia	Lurraldea	.000	Gipuzkoa
Lehen mailako ikasketak, ikasketarik ez	Ikasketak	.000	Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak
5.000 biztanlerarte	Bizilekua	.013	5.000-150.000 biztanle artean
Katolikoak, praktikanteak edo ez	Erljioa	.000	Agnostikoak, ateoak eta ezaxolak
Erdaldunak	Hizkuntza	.000	Euskaldunak
Espainiar nazionalistak	Abertzaletasuna	.000	Euskal abertzalea, euskal abertzale moderatua, ezaxola
Batez ere espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	.000	Batez ere euskaldun sentitzen direnak, espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak
Eskuina	Ideologia	.001	Ezkerrekoak eta zentro-ezkerrekoak
Hilean 1.000 €, gehienez	Diru-sarrerak	.011	Hilean 2.500 € edo gehiago
Gustura ez daudenak	Egoera	.000	Gustura daudenak eta ezaxolak
Langabeak, erretiroa hartutakoak eta etxeko lanetan aritzen direnak	Lanbidea	.000	Ikasleak
Estatus baxua eta erdi-mailakoa	Estatusa	.000	Estatus altua
Eragin handia	Krisiaren	.015	Eragin baxua
Ezkorrak	Baikortasuna	.000	Baikorrak eta ezaxolak
Aurreikuspen txarrak	Etorkizuna	.000	Aurreikuspen onak eta normalak
Etorkinak eta bertakoak nahasita	Auzoa	.007	Etorkin asko dagoen auzoetan bizi direnak
Inolako hartu-emanik ez	Elkarreragina eremu pribatuan	.000	Nolabaiteko hartu-eman
Inolako hartu-emanik ez	Elkarreragina eremu publikoan	.000	Hartu-eman handia edo nolabaitekoa
Inolako elkarreraginik ez	Elkarreragina aisialdian	.000	Elkarreragin handia edo nolabaitekoa

## Ondorio nagusiak:

1. Aurreko urteetan bezala, aurkeztutako datuek berriro adierazten digute EAEko herritarrek jarrera anbibalentea dutela atzerriko etorkinekin: ezaugarri ireki eta toleranteak aurkakoagoak diren jarrerekin nahasten dira. Hala ere, jarrera tolerantea gora doa argi eta garbi.
2. Lan-merkatuari eta etorkinen kolektiboak merkatu horretan duen funtzionalitateari lotutako kontuak neurtzen dituzten elementuek gutxitzeari utzi diote, baina oraindik ez daude krisiaren aurreko ehunekoetan.
3. Gizarteratze-ereduan eta horrelako alderdietan nabaritzen da anbibalentzia. Kultura-aniztasunaren aberastasun soziala azpimarratzen duten iritzien aurrean jarrera asimilazionistak ere ageri dira, azken boladan finkatu eta areagotu egin direnak. Izan ere, kontu gehienetan ziklo-aldaketa bat nabaritzen den bitartean, kontu honetan krisi-garaian hasitako joerak eutsi egin dio.
4. Atzerriko etorkinak iristearekin lotutako gaien artean, bi hauek dira ziurgabetasun eta susmo txar handienak sortzen dituzten alderdiak: euskal gizartearen ongizate-egoerari eustea eta oinarrizko eskubideak eta zerbitzu sozialak eskuratu ahal izatea. Hala ere, beherakada nabaritu da aurreiritzi horietakoren batean. Oso esanguratsua da ongizate-estatuari, babes sozialari eta prestazio ekonomikoei lotutako aurreiritzietan izandako beherakada.
5. Ondorio gisa, 2014ko eta 2015eko datuak hobeak izan dira 2013koak eta aurreko urteetakoak baino.
6. Beraz, badirudi krisi ekonomikoaren eragina murrizten ari dela immigrazioarekiko pertzepzio negatiboetan eta 2014 eta 2015eko barometroek etapa normalizatuago baten hasiera adierazten dutela immigrazioaren inguruko pertzepzio eta jarreraren alorrean.



# ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
*Familia Politikarako eta Komunitate  
Garapenerako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
*Dirección de Política Familiar  
y Desarrollo Comunitario*